

III. MENDEKO BREXITA




Nagore Irastabarrena
Uranga

@irastabarrena

Galia, 286. Maximiano erromatar enperadore berriak bagauden aurkako kanpaina abiatu zuen. 285ean, Dioklezianok matxino bagaudak mendean hartu zituen euskal lurraldeetan eta urtebete geroago Galian geratzen ziren errebolitariak txikitu zituzten. Kanpaina horretan, besteak beste, Marko Aurelio Karausio nabarmendu zen. Galia Belgika probintzian jaioa, Karausio menapioa zen jatorriz, baina inperioaren alde ari zen. Aurrez marinela lanetan izandako esperientziari bagauden kontrako arrakasta erantsita, Karausio Classis Britannica Britania probintziako itsas armadako komandante izendatu zuten. Senatuak Mantxako kanalaren alde banatako herriei erasotzen zieten piratak egozteko agindua eman zion.

Urtebetean, komandanteak egitekoa bikain bete zuen, harrapatu zituen itsasontzi kopuruari erreparatu gero. Metodoari begiratuta, arrakasta ez zen hain garbia. Karausio herriak arpilatzen uzten zien piratei eta gero ontziak atzematen zituen -Erromaren mesedetan- eta harrapakina ere bai -bere buruarenean-. Piratekin tratuak ere egin omen zituen, lapurtutako ondasunak



Portchester gotorlekua, Ingalaterrako kostaldean, 1786ko ilustrazio batean. Gotorlekua Dioklezianoren aginduz eraiki zuten, baina Marko Aurelio Karausio, berehala, erromatarren aurka erabili zuen.

banatzeko. Praktika zalantzarik ez zurrumurrua Erromaraino iritsi zen eta Maximianok Karausio exekutatuzko eskatu zuen. Epaiaren berri izan zuenean, Karausio modu nabarmenean erantzun zuen: Classis Britannicaren, inguruko piraten, Britaniako hiru legioren eta Galiako beste legio baten babesaz, Britaniako independentzia aldarrikatu zuen eta bere burua bertako enperadore izendatu.

Eta Erromaren etsai bihurtuta, lagun berriak erraz egin zituen: piktoek eta erromatarren menpean zeuden beste herri batzuek Britaniako enperadore berriarekin bat egin zuten. 288an, Maximiano probintzia ohia berreskuratzen ahalegindu zen, baina Karausio eta bere inguruan bildutakoek lortu zuten garaipena.

Erromatar Inperioaren agintea lautu banatuta zegoen: bi Augusto (Diokleziano eta Maximiano) eta bi Zesar (Galerio

eta Konstanzio). Ezegonkortasun hori baliatu zuen Karausio bere boterea egonkortzeko, harreman diplomatikoak abiaraziz, aliantza berriak bultzatuz eta Mantxako kanalaren kontrola indartuz. Txanpon propioak ere egin zituen, bere aurpegiarekin eta *Restitutor Britanniae* eta *Genius Britanniae* lelo apalekin. Eta abenturak zazpi urte iraun zuen.

293an Konstanziok Karausioaren tropak menperatu zituen Galian. Beste hiru urte beharko zituzten Britainiar uharteak berreskuratuz, baina Karausio 293an bertan hil zuen Alekto adiskideak. Heriotzean ez zuen Erromatik bereiztea lortu, lagunak laguna hiltzea erromatar "tradizioa" baitzen. ■



ANTARCTIC HERITAGE TRUST

106 urteko biskotxo

Antartikan, Adare lurmuturrean, Huntley & Palmers enpresak duela 106 urte fabrikatutako fruta-biskotxo bat aurkitu dute, jatorrizko paperan bilduta eta herdoildutako metalezko kaxa batean. Adituen ustez, biskotxo Robert Falcon Scott buru zuen Terra Nova espedizioak (1910-1913) eraman zuen bazter izoztu haietara, hainbat agiritan idatziz jasota geratu baitzen es-

pedizioak halako produktuak kontsumitu zituela. Eta gainera, duela hilabete batzuk inguru hartan Edward Wilsonen espediziokidearen akuarela bat aurkitu zuten. Arduradunen esanetan, "biskotxoak gurin minduaren usain pixka bat du, oso-oso arina, baina horrez gain, erabat jangarria da". Scott eta Wilson espedizioan hil ziren, baina biskotxoak iraun egin zuten. ■